


*Larriki gaixorik dauden presoen eskubideen aldeko manifestazio egingo du Sarek, larunbatean, Gasteizen, eta LABek babesa eman dio deialdiari. Mobilizazioa 17:30ean abiatuko da Iparralde gizarte etxetik.*

Euskal gatazkaren ondorio eta konponbidearen parte diren presoei ezartzen zaizkien salbuespen egoera eta neurriekin amaitzea exijitzen dugu. Giza eskubideen ikuspegitik ere konpondu beharreko kontua da presoena; gaixorik daudenen egoera, batez ere. Mobilizazioa da elkartasunetik konpromisoetara pasatzeko modurik eraginkorrena, eta, horregatik, Gasteizen izango da sindikatuko ordezkaritza bat. Era berean, langile guztiei dei egiten diegu manifestazioan parte hartu eta presoen aldeko dinamiketan inplikatzeko.